# Xedapen Orokorrak

**INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA**

**2857**

85/2011 DEKRETUA, maiatzaren 3koa, zeinen bidez Itsasmendikoi SA Sozietate Publikoari esleitzen baitzaizkio Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari atxikitako Bermeoko (Bizkaia) Nautika Arrantzako Lanbide Eskolan eskaintzen den nautika-arrantzako heziketa-zerbitzuaren kudeaketa eta horretarako beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 2. xedapen iragankorrean ezarritako Bitariko Batzordeak, 2010eko urriaren 28an egindako osoko bilkuran, erabaki zuen Itsasoko Gizarte Institutuak hezkuntzaren, enpleguaren eta enplegurako lanbide-heziketaren arloetan dituen eginkizun eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzea.

Erabaki hori onartu zen Lurralde Politika eta Administrazio Publikoko Ministerioaren azaroaren 5eko 1442/2010 Errege Dekretuaren bidez (EAOn argitaratua, 277. zenbakian, azaroaren 16an) eta Jaurlaritzaren Lehendakaritzaren azaroaren 9ko 288/2010 Dekretuaren bitartez (EHAAn argitaratua, 220. zenbakian, azaroaren 16an).

Eusko Jaurlaritzaren 288/2010 Dekretuak, 2. artikuluan, xedatzen du eskualdatutako eginkizunak arlo horretan eskudun diren sailen esku geratuko direla. Erabakian adostutakoaren arabera, bi arlotako eginkizunak eskualdatuko dira: hezkuntza-arlokoak, batetik, eta lan-legedia betetzearen eta, bereziki, laneko bitartekotzaren, enplegua sustatu eta babestearen eta enplegurako lanbide-heziketaren arlokoak.

Lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuan (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta sail horien eginkizunak eta jarduera-eremuak finkatzen dituena) ezarritako eskumenen banaketaren arabera, ez dira Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren eskumenekoak lanbide-heziketako tituluak eta profesionaltasun-ziurtagiriak lortzeko aukera eskaintzen duen lanbide-heziketa ematea, ez eta laneko bitartekotza eta enplegua sustatu eta babestea ere (Erabakiko B letra, 1., 2.1 eta 2.2 paragrafoak).

# Disposiciones Generales

**DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA**

**2857**

DECRETO 85/2011, de 3 de mayo de 2011, por el que se adscribe a la Sociedad Pública Itsasmendikoi, S.A. la gestión del servicio de formación náutico-pesquera desarrollado en el Centro de Formación Náutico-Pesquera de Bermeo (Bizkaia), adscrito al Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, así como los medios personales y materiales necesarios para tal fin.

El pleno de la Comisión Mixta prevista en la disposición transitoria 2.ª del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, en su reunión del día 28 de octubre de 2010, adoptó el Acuerdo de traspasar a la Comunidad Autónoma del País Vasco funciones y servicios del Instituto Social de la Marina en materia educativa, de empleo y formación profesional para el empleo.

Mediante Real Decreto 1442/2010, de 5 de noviembre, del Ministerio de Política Territorial y Administración Pública, publicado en el número 277 del Boletín Oficial del Estado del día 16 de noviembre y Decreto 288/2010, de 9 de noviembre, de Presidencia de Gobierno, publicado en el Boletín Oficial del País Vasco, número 220 del día 16 de noviembre, se aprobó dicho Acuerdo.

El Decreto 288/2010 del Gobierno Vasco en su artículo 2 dispone que las funciones transferidas quedarán adscritas a los departamentos competentes en la materia. En el Acuerdo se contempla el traspaso de funciones en dos materias: en materia educativa y en materia de ejecución de la legislación laboral y, en particular, de intermediación laboral, de fomento y apoyo al empleo y de formación profesional para el empleo.

Ajustándonos a la distribución de competencias realizada por Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, no son de competencia del Departamento de Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, la formación profesional conducente a la obtención de títulos de formación profesional y certificados de profesionalidad, ni la intermediación laboral, ni el fomento y apoyo al empleo (letra B, apartados 1, 2.1 y 2.2 del Acuerdo).

Beraz, eskualdatuko diren zerbitzu eta eginkizunen artean, sail horren eskumenekoa izango da itsasoko langileentzako enplegurako lanbide-heziketa. Eginkizun horiek egin ahal izateko, eta eginkizunok eraginkor izan daitezen, Bermeoko Nautika-Arrantzako Lanbide Eskola eta eskolaren lurralde-eremuko instalazioak ere eskualdatuko dira. Instalazioak Erabakiko 1. zerrendan zehaztu dira (B letra, 2.3 paragrafoa eta 3. paragrafoa).

E) letran ondasun higiezinak eta eskubideak eskualdatu dira –1. zerrendako inbentario xehatuan zerrendatutakoak–, bai eta haietan dagoen guztia ere, inolako ondasun-motarik kanpo utzi gabe. Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartuko ditu ondasun higiezin horien gaineko eskubide eta eskumen oro, salbu ondasunen titulartasuna. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia izango da haien titular, aurrerantzean ere.

Azkenik, F) letran eta letra horretako 2. zerrendan zehaztu da zein funtzionario eta lan-kontratudun dauden eskualdatu diren zerbitzuei atxikita.

Lehenago, eta orduan ere Eskualdatzeen Bitariko Batzordearen Erabakiz, Euskal Autonomia Erkidegora eskualdatu ziren zerbitzuak, institutzioak, ondasunak, eskubideak eta betebeharrak, bai eta nautika-arrantzako irakaskuntza-zerbitzuari atxikitako langileak ere, honako bi dekretu hauetan ezarritako baldintzetan: 3391/1981 Errege Dekretuan, abenduaren 29koan (urtarrilaren 28ko BOE) eta 11/1982 Dekretuan, otsailaren 1ekoan (EHAA, 19. zk., otsailaren 13koa). Erabaki horretako B) letrako zerrenda luzea laburbilduz, aipatutako eginkizunen artean nabarmentzekoak dira honako hauek: nautika-arrantza eskoletako langileen beharren aurreikuspenak egin eta onartzea; institutu politeknikoak, zentroak eta eskolak sortu, eraldatu, zabaldu, sailkatu eta kentzea; ikasketa-planak, programak eta pedagogia-orientazioak egin eta onartzea, bai erregimen arruntekoak bai esperimentalak; eskualdatutako eskola eta zerbitzuei atxikitako irakasleen eta irakasle ez diren langileen izendapena, lekualdaketa, sustapena, hobekuntza eta mugikortasuna, eta nautika-arrantza eskoletako araubide juridikoa eta administratiboa erabakitzea; eta abar.

Nautika-arrantzako heziketa emateko eskumena Arrantza eta Elikagaien Industriako Sailburuordetzari esleitu zaio, abenduaren 22ko 629/2009 Dekretuak 18. artikuluan xedatutakoaren arabera (Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena, abenduaren 30eko EHAAn, 250. zenbakian, argitaratua, abenduaren 30ean). Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzak izango du eskumena nautika-arrantzako heziketa antolatu eta kudeatzeko, bai eta nautika eta jolas-ontzietarako tituluak eta irakaskuntza antolatu eta kudeatzeko ere (19. artikuluko p eta q idatz-zatiak).

Por tanto, de los servicios y funciones que se traspasan son de competencia de este Departamento la formación profesional para el empleo dirigida a los trabajadores del mar. Para poder realizar estas funciones y lograr su efectividad, también se traspasa el Centro de Formación Náutico-Pesquera de Bermeo y las instalaciones de su ámbito territorial detalladas en la relación número 1 del Acuerdo (letra B, apartado 2.3 y apartado 3).

En la letra E) se traspasan los bienes inmuebles y derechos que se relacionan en el inventario detallado de la relación número 1, con todo lo que en ellos se halle, sin excepción de ningún tipo de bienes, asumiendo la Comunidad Autónoma del País Vasco todas las facultades y derechos que puedan recaer sobre dichos bienes inmuebles, excepto su titularidad, que continuará a nombre de la Tesorería General de la Seguridad Social.

Por último, en la letra F) y en su relación adjunta número 2 se detalla el personal funcionario y laboral adscrito a los servicios que se traspasan.

Anteriormente, y también por Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias, se traspasaron a esta Comunidad los servicios, instituciones, bienes, derechos y obligaciones, así como el personal adscrito al servicio de la enseñanza náutico-pesquera, en los términos recogidos en el Real Decreto 3391/1981, de 29 de diciembre (BOE de 28 de enero) y en el Decreto 11/1982, de 1 de febrero (BOPV 19, de 13 de febrero). Resumiendo la prolija relación de la letra B) de este Acuerdo, entre dichas funciones podemos destacar la elaboración y aprobación de las previsiones de necesidades de personal de los centros docentes náutico-pesqueros; la creación, transformación, ampliación, clasificación y supresión de Institutos Politécnicos, Centros y Escuelas; la elaboración y aprobación de planes, programas de estudios y orientaciones pedagógicas, tanto en régimen ordinario como con carácter experimental; el nombramiento, traslado, promoción, perfeccionamiento y movilidad del personal docente y no docente adscrito a los Centros y servicios trasferidos, y la determinación del régimen jurídico y administrativo de los centros náutico-pesqueros.

La formación náutico-pesquera es una competencia atribuida a la Viceconsejería de Pesca e Industrias Alimentarias, según el artículo 18 del Decreto 629/2009, de 22 de diciembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca (BOPV 250, de 30 de diciembre), residenciando en la Dirección de Pesca y Acuicultura la atribución para ordenar y gestionar la formación náutico-pesquera, así como para llevar a cabo la ordenación y gestión en materia de titulaciones y enseñanzas náutico-recreativas (artículo 19, letras p y q).

Gaur egun, Itsasmendikoi SA sozietate publikoak ematen du nautika-arrantzako heziketa, azaroaren 28ko 249/2006 Dekretuan xedatutakoari jarraikiz (EHAA, 242. zk., abenduaren 21ekoa). Dekretu horren bidez esleitu zitzaion aipatutako zerbitzuaren kudeaketa. Nekazaritzako heziketa-zerbitzua ere kudeatzen du, ekainaren 24ko 154/1997 Dekretuan egindako esleipenari jarraikiz (EHAA, 123. zk., ekainaren 30ekoa).

«Itsasmendikoi SA» sozietate publikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko landa-heziketa, sustapen eta garapenerako zentro integrala da, eta funtsezko helburu hauek ditu: batetik, Euskadiko lehen sektorea modernizatu eta profesionalizatzea, belaunaldi berriek zaharrak ordezkatuko dituztela bermatuz; eta, bestetik, lurrralde-oreka ezartzea, landatarren bizi-baldintzak hiritarrenen pareko izan daitezen, biztanleak finkatzea eta kulturari nahiz tradizioei eustea bultzatzeko. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren tresna propio eta zerbitzu teknikoa da, eta hala dago onartuta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legeko 24.6 artikuluan.

Dekretu honi buruzko txostena egin dute honako hauek: Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzak, Berrikuntza eta Administrazio Elektronikoaren Zuzendaritzak eta Ekonomia eta Araugintza Kontrolatzeko Bulegoaren Zuzendaritzak. Lan Harremanen Zuzendaritzak txosten horren berri eman du, eta txostenaren kopia bat bidali die ordezkari sindikalei, Langileen Estatutuko 44. artikuluan xedatutakoa betetze aldera.

Ondorioz, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2011ko maiatzaren 3ko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

***1. artikulua.***– Itsasoko Gizarte Institutuak Bermeoko Nautika Arrantzako Lanbide Eskolan eskaintzen duen nautika-arrantzako heziketa-zerbitzuaren kudeaketa Itsasmendikoi S.A. Sozietate publikoari esleitzen zaio. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak izango du eskumena nautika-arrantzako heziketa antolatzeko, abenduaren 22ko 629/2009 Dekretuak 19.p) artikuluan egindako esleipenari jarraikiz.

***2. artikulua.***– 1.– Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak, dagokion inbentarioa egin eta gero, Itsasmendikoi SA sozietate publikoaren eskura jarriko ditu Dekretu honen I. eranskinean zerrendatutako ondasun higiezinak eta eskubideak, eta zerbitzuari atxikitako ondasun higi-

Actualmente la formación náutica-pesquera se imparte por la Sociedad Pública Itsasmendikoi, S.A., en virtud del Decreto 249/2006, de 28 de noviembre (BOPV número 242, de 21 de diciembre) por el que se le adscribió la gestión de dicho servicio. Gestiona también el servicio de formación agraria según adscripción realizada por Decreto 154/1997, de 24 de junio (BOPV n.º 123, de 30 de junio).

«Itsasmendikoi, S.A.» es un centro integral para la formación, promoción y desarrollo rural de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que persigue, como objetivos fundamentales, por un lado, la modernización y profesionalización del sector primario vasco garantizando el relevo generacional y, por otro, el establecimiento del equilibrio territorial, de forma que se puedan equiparar las condiciones de vida rural a la urbana, favoreciendo el asentamiento de la población y mantenimiento de la cultura y las tradiciones. Goza y tiene reconocida la condición de ser un medio propio instrumental y servicio técnico de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, según el artículo 24.6 de la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público.

Han emitido informe sobre el presente Decreto la Dirección de Función Pública, la Dirección de Patrimonio y Contratación, la Dirección de Innovación y Administración Electrónica y la Dirección de la Oficina de Control Económico-Normativo. Por la Dirección de Relaciones Laborales se ha comunicado y remitido una copia del mismo a los representantes sindicales a fin de cumplir lo dispuesto en el artículo 44 del Estatuto de los Trabajadores.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 3 de mayo de 2011,

DISPONGO:

***Artículo 1.***– Se adscribe la gestión del servicio de formación náutico-pesquera desarrollado por el Instituto Social de la Marina en el Centro de Formación Náutico-Pesquera de Bermeo a la Sociedad Pública Itsasmendikoi, S.A., reservándose el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca el ejercicio de las funciones de ordenación de la formación náutico-pesquera que le atribuye el artículo 19.p) del Decreto 629/2009, de 22 de diciembre.

***Artículo 2.***– 1.– El Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, previa confección del correspondiente inventario, pondrá a disposición de la Sociedad Pública Itsasmendikoi, S.A. para su utilización y hasta tanto dure la adscripción del servicio, los bienes inmuebles y

garriak, erabil ditzan, zerbitzuaren esleipenak iraun bitartean.

2.– Aipatutako ondasunak Itsasmendikoi SA sozietate publikoaren esku jartzea formalizatzeko, bi emate-akta sinatuko dira: «ondasun higiezinak emateko akta» eta «ondasun higigarriak emateko akta». Aktok Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzaren titularrak eta sozietatearen ordezkariak sinatuko dituzte. Aipatutako aktetan ondasunen zerrenda zehaztua jasoko da, eta aktak Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzarekin koordinazioan egingo dira. Aktak sinatu eta gero, haien kopia bat bidaliko da Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzara, Ondasun eta Eskubideen Inbentario Orokorrean jasota gera daitezen.

3.– Eraginpean dauden ondasun higiezinak Itsasoko Gizarte Institutuaren esku utziko dira (I. eranskinean jaso dira), eta haien titulartasuna Euskal Autonomia Erkidegoari esleitzen ez zaion bitartean, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren ondarearen zati direla joko da.

***3. artikulua.***– 1.– Itsasmendikoi SA sozietate publikoak betebehar izango du instalazioak, ekipoak eta ondasun higiezinak baldintza onetan izatea, eta horretarako beharrezko diren obrak egitea.

2.– Itsasmendikoi SA sozietate publikoak behar bezala zainduko ditu ondasun eta elementu higigarriak, eta halakorik galtzen, hondatzen edo zaharkitzen bada, beste batzuk jarri beharko ditu haien tokian.

3.– Baldin Administrazioaren jabetzakoak diren eta Itsasmendikoi SA sozietate publikoaren eskura jarri diren ondasunak aurrerantzean zerbitzua emateko ez direla beharrezkoak jotzen bada, edo erabiltzen ez badira, ondasun horien jabetza Administrazioari itzuliko zaio, indarrean den legedian ezarritako prozeduraren arabera.

***4. artikulua.***– 1.– Itsasmendikoi SA sozietate publikoak bere kargu utziko diren eginkizunak egiteko beharrezko diren instalazioak susta eta eraiki ditzake, eta lehendik zeuden eta bere eskura jarri diren instalazioak egokitu ere egin ditzake.

2.– Instalazioen oinarrizko egituran edo instalazioen segurtasunean eragina duten obra-proiektuak gauzatzeko zorrozki bete beharko da arlo horretan aplikagarri den araudia, eta Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzak onartu beharko ditu obra-proiektu horiek, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren eskumenen kalterik gabe.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren jabari publikoko lurzoruaren gainean egingo diren eraikuntza berriak Administrazio Orokor horren ondarean sartuko dira. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoaren ondarearen zati izango dira artikulu honetako lehen paragrafoan aipatutako instalazioak eraiki, egokitu, aldatu edo hobetzeko obrak, baldin Euskal Autonomia Erkidegoaren jabetzako

derechos que se relacionan en el anexo I del presente Decreto y los bienes muebles adscritos al servicio.

2.– La puesta a disposición se formalizará mediante la suscripción de dos actas de entrega: el «acta de entrega de bienes inmuebles» y el «acta de entrega de bienes muebles» que serán suscritas por el titular de la Dirección de Pesca y Acuicultura y por el representante de la Sociedad. Las referidas actas contendrán la relación detallada de los bienes y se elaborarán en coordinación con la Dirección de Patrimonio y Contratación. Una vez firmadas las actas, se remitirá una copia a la Dirección de Patrimonio y Contratación para su constancia en el Inventario General de Bienes y Derechos.

3.– La puesta a disposición de los bienes inmuebles afectados al Instituto Social de la Marina, recogidos en el anexo I y hasta tanto no se atribuya su titularidad a la Comunidad Autónoma del País Vasco, serán del patrimonio de la Tesorería General de la Seguridad Social.

***Artículo 3.***– 1.– La Sociedad Pública Itsasmendikoi, S.A. estará obligada a mantener las instalaciones, los equipos y los bienes inmuebles en perfectas condiciones y a realizar las obras que para ello sean necesarias.

2.– La Sociedad Pública Itsasmendikoi, S.A. conservará adecuadamente los bienes y elementos muebles y, en caso de pérdida, deterioro u obsolescencia, deberá reponer otros en su lugar.

3.– En el caso de que los bienes propiedad de la Administración y puestos a disposición de la Sociedad Pública Itsasmendikoi, S.A., devinieren innecesarios o dejaren de utilizarse para la prestación del servicio, la posesión de los mismos revertirá a la Administración, de acuerdo con el procedimiento establecido en la normativa vigente.

***Artículo 4.***– 1.– La Sociedad Pública Itsasmendikoi, S.A., podrá promover y construir las instalaciones necesarias para el desarrollo de las funciones encomendadas así como adecuar las existentes puestas a su disposición.

2.– Los proyectos de obras que afecten a la estructura básica de las instalaciones o a la seguridad de las mismas, serán realizados con estricto cumplimiento de la normativa aplicable en la materia, y serán objeto de aprobación por la Dirección de Pesca y Acuicultura, sin perjuicio de las competencias de la Dirección de Patrimonio y Contratación.

3.– Las nuevas edificaciones levantadas sobre suelo de dominio público de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, se integrarán en el patrimonio de ésta. También se integrarán en el patrimonio de la Comunidad Autónoma del País Vasco las obras para la construcción, adecuación, modificación o mejora de las instalaciones señaladas en el apartado primero del presente artículo, cuando se

ondasunen gainean egiten badira. Nolanahi ere, baimena lortu beharko da halakoak egiteko, mantentze edo zaintze-obrak baino gehiago direnean. Obrak bukatzen direnean, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak horren berri emango dio Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzari, Ondasun eta Eskubideen Inbentario Orokorra egunera dezan.

4.– Sozietatearen kontratazioa Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 30/2007 Legeak, urriaren 30ekoak, xedatutakoa betez egingo da, Lege horretan ezarritako kasuetan eta baldintzetan.

***5. artikulua.***– 1.– Bermeoko Nautika Arrantzako Lanbide Eskolako nautika-arrantzako heziketa-zerbitzuari atxikitako funtzionarioei –zehazki, Dekretu honen eraginpean daudenei– aplikagarri izango zaizkie Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak III. tituluko IV. kapituluko 3. atalean legez ezarritako zehaztapenak (lege horren zati bat aldatu zuten azaroaren 7ko 16/1997 Legeak eta otsailaren 18ko 4/2005 Legeak).

2.– Bermeoko Nautika Arrantzako Lanbide Eskolako nautika-arrantzako heziketa-zerbitzuari atxikitako lan-kontradugun langileei –zehazki, Dekretu honen eraginpean daudenei– aplikagarri izango zaie 1/1995 Errege Dekretuak, martxoaren 24koak, 44. artikuluan xedatutakoa (Errege Dekretu horren bitartez onartu zen Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bategina).

3.– Bermeoko Nautika Arrantzako Lanbide Eskolako nautika-arrantzako heziketa-zerbitzuari atxikitako langileak –Dekretu honen eraginpean daudenak– II. eranskinean ageri dira, izen eta guzti.

***6. artikulua.***– 1.– Baldin Itsasmendikoi SA sozietate publikoa kaudimen ezean erortzen bada, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko sozietate publiko izateari uzten badio ere, nautika-arrantzako heziketa-zerbitzuaren kudeaketa Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari itzuliko zaio, zuzenean.

2.– Zerbitzua sailaren eskuetara itzultzeak honako ondorio hauek ekarriko ditu:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak sozietatearen esku jarritako ondasun eta eskubideak berreskuratzea.

b) Sailaren eskuetara itzultzeko unean nautika-arrantzako heziketa-zerbitzuan lanean diharduten lan-kontratudun langileak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan sartzea, indarrean den lan-araudian ezarritako baldintzetan.

c) Sozietate publiko izateari uzten badio, Itsasmendikoi SA sozietateak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari entregatuko dizkio bere

realicen sobre bienes de propiedad de esta Comunidad, requiriéndose en todo caso la autorización cuando no sean de mero mantenimiento o conservación. Una vez finalizadas estas obras, el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca lo comunicará a la Dirección de Patrimonio y Contratación para la actualización del Inventario General de Bienes y Derechos.

4.– La contratación de la sociedad se ajustará a la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, en los casos y términos establecidos por ésta.

***Artículo 5.***– 1.– Al personal funcionario adscrito al servicio de formación náutico-pesquera del Centro de Formación Náutico-Pesquera de Bermeo afectado por este Decreto, le serán de aplicación los mecanismos legalmente previstos en la Sección 3.ª del Capítulo IV, del Título III, de la Ley 6/1989, de la Función Pública Vasca, de 6 de julio modificada parcialmente por la Ley 16/1997, de 7 de noviembre, y por la Ley 4/2005, de 18 de febrero.

2.– Al personal laboral adscrito al servicio de formación náutico-pesquera del Centro de Formación Náutico-Pesquera de Bermeo afectado por el presente Decreto, le será de aplicación lo dispuesto en el artículo 44 del Real Decreto 1/1995, de 24 de marzo por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores.

3.– El personal adscrito al servicio de formación náutico-pesquera del Centro de Formación Náutico-Pesquera de Bermeo afectado por este Decreto se referencia nominalmente en el anexo II.

***Artículo 6.***– 1.– Revertirá automáticamente al Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca la gestión del servicio de formación náutico-pesquera, cuando la Sociedad Pública Itsasmendikoi, S.A. incurra en insolvencia, así como en el caso de pérdida de su condición de Sociedad Pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– La reversión del servicio producirá los siguientes efectos:

a) La recuperación por la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi de los bienes y derechos puestos a disposición de la Sociedad.

b) La incorporación a la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi del personal laboral que, en el momento de la reversión, se encuentre desempeñando funciones en el servicio de formación náutico-pesquera, en las condiciones establecidas en la normativa laboral en vigor.

c) En el caso de pérdida de su condición de sociedad pública, Itsasmendikoi, S.A. entregará a la Administración General de la Comunidad Autóno-

jabetzako ondasun eta eskubideetatik, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak zerbitzurako beharrezko jotzen dituenak.

d) Kaudimen eza gertatuz gero, haren jabetzakoak diren ondasun eta eskubideekin zer egin erabakitzeko, konkurtso-espedientean jarraitutako hitzarmena onartzeko epaian epaileak erabaki duenari men egin beharko zaio.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa***.– Dekretu hau indarrean izango da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera. Hala ere, Itsasoko Gizarte Institutuak Bermeoko Nautika Arrantzako Lanbide Eskolan eskaintzen duen nautika-arrantzako heziketa-zerbitzua kudeatzeko ardura Itsasmendikoi SA sozietate publikoari esleitzea 2011ko uztailaren 1etik aurrera izango da indarrean.

***Bigarrena***.– Dekretu honek administrazio-bidea agortzen du, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 109. artikuluan xedatutakoaren arabera. Horren kontra berraztertzeko errekurtsoa jar daiteke, nahi izanez gero, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera. Edo, bestela, zuzenean aurka egin dakioke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean; horretarako, bi hileko epea izango da, argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik jarri aurkeztutako berraztertzeko errekurtsoaren ebazpen espresua eman arte edo presuntziozko ezespena gertatu arte, baldin halakorik aurkeztu bada. Halaber, baldin berraztertzeko errekurtsoa presuntzioz ezesten bada, errekurtso jurisdikzionala jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, presuntziozko egintza gertatzen den egunaren biharamunetik aurrera. Eta, hori guztia, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 46. artikuluan eta azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 116. artikuluan xedatutakoa betez.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko maiatzaren 3an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Ingurumen, Lurralde Plangintza,
Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

ma del País Vasco, aquellos bienes y derechos de su propiedad que el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca considere necesarios para el servicio.

d) En el caso de insolvencia se habrá de estar a lo decidido por el juez en la sentencia aprobatoria del convenio seguido en el expediente concursal, respecto a los bienes y derechos de su propiedad.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera***.– El presente Decreto surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco. No obstante lo anterior, la adscripción de la gestión del servicio de formación náutico-pesquera desarrollado por el Instituto Social de la Marina en el Centro de Formación Náutico-Pesquera de Bermeo a la Sociedad Pública Itsasmendikoi, S.A. surtirá efectos desde el 1 de julio de 2011.

***Segunda***.– El presente Decreto agota la vía administrativa de conformidad con el artículo 109 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. Contra él podrá recurrirse, potestativamente, en reposición, ante la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, en el plazo de un mes, contado a partir del día siguiente a aquel en que tenga lugar su publicación o ser impugnado, directamente ante la Sala de lo Contencioso-administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses, también contado desde el día siguiente al de su publicación.

No se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que se haya resuelto expresamente o se haya producido la desestimación presunta del recurso de reposición, si éste se hubiera interpuesto. Asimismo, se advierte que el plazo para la interposición del recurso jurisdiccional, en caso desestimación presunta del recurso de reposición, es de seis meses a partir del día siguiente a aquél en que se produzca el acto presunto. Todo ello de conformidad con lo establecido en el artículo 116 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre y 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 3 de mayo de 2011.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

La Consejera de Medio Ambiente,
Planificación Territorial, Agricultura y Pesca,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

## I. ERANSKINA, MAIATZAREN 3KO 85/2011 DEKRETUARENA;

ONDASUN HIGIEZINEN INBENTARIOA

| Identifik. zk. | Helbidea eta herria | Kokapena | Azalera esleitua | Azalera, guztira | Jabetzaren titularra |
|---|---|---|---|---|---|
| 4805 | Ongintza, z/g Bermeo, (Bizkaia) | Higiezin osoa | 1.318,37 m² | 1.318,37 m² | GSDN |

## II. ERANSKINA, MAIATZAREN 3KO 85/2011 DEKRETUARENA

BERMEOKO NAUTIKA ARRANTZAKO LANBIDE ESKOLAKO NAUTIKA-ARRANTZAKO HEZIKETA-ZERBITZUARI ATXIKITAKO LANGILEAK, DEKRETU HONEN ERAGINPEAN DAUDENAK

I.– FUNTZIONARIOAK

| Abizenak eta izena | Nan zk. | Lanpostua, | Kargua | Izendapen-mota |
|---|---|---|---|---|
| Agudo Urresti, M. del Carmen | 72252753 | Lanpostua 14. maila | | Karrerako funtzion. |
| Duque Castillo, Emilio | 72241607 | BBB/LH | irak. | Karrerako funtzion. |
| Ensunza Lamiquiz, José Ignacio | 72239862 | BBB/LH. | irak., J. depart. | Karrerako funtzion. |
| Goyenechea Garay, Juan Carlos | 14910968 | Prest. tailer-maisua | | Karrerako funtzion. |
| Zabaleta Astoreca, M.ª Begoña | 78868489 | Lanpostua. TR., 14. maila, C2 | | Karrerako funtzion. |

II.– LAN-KONTRATUDUN LANGILEAK

| Abizenak eta izena | Nan zk. | Lanpostua, | Kargua | Izendapen-mota |
|---|---|---|---|---|
| Echevarria Betanzos, Arantza | 72252834 | Kud. Zerb. Erkid. Lagunt. | | Bitartekoa |
| Fernández González, José Luis | 78868595 | Goi-M. Tit. Jar. Berz | idazkaria | Lan-kontratudun langile finkoa |
| Goitia Renteria, Juan Francisco | 24402179 | Goi-M. Tit. Jar. Berz. | BBB ikasketaburua | Lan-kontratudun langile finkoa |
| Gutiérrez Bustamante, Miren | 14592569 | Goi-M. Tit. Jar. Berz. | departamentuburua | Bitartekoa |
| Jaureguizar Emerit, Ernesto | 72248242 | Kud. Zerb. Erkid. Lagunt. | | Lan-kontratudun langile finkoa |
| San Miguel Rodriguez, Karmele | 16070803 | Goi-M. Tit. Jar. Berz. | irak. | Lan-kontratudun langile finkoa |
| Urruchua Madariaga, Fco | 72236628 | Goi-M. Tir. Jar. Tek. | | Lan-kontratudun langile finkoa |
| Zabalbeascoa Garro, José | 14874396 | Goi-M. Tit. Jar. Berz. | irak. | Bitartekoa |
| Zabaleta Gaubeca, Juan A | 72244122 | Goi-M. Tit. Jar. Berz. zuzendaria | zuzendaria | Lan-kontratudun langile finkoa |

## *ANEXO I AL DECRETO 85/2011, DE 3 DE MAYO*

*INVENTARIO DE BIENES INMUEBLES*

| N.º identific. | Dirección y localidad | Ubicación | Superficie adscrita | Superficie total | Titular de la propiedad |
|---|---|---|---|---|---|
| 4805 | Ongintza, s/n<br>Bermeo, (Bizkaia) | Todo el inmueble | 1.318,37 m² | 1.318,37 m² | TGSS |

## *ANEXO II AL DECRETO 85/2011, DE 3 DE MAYO*

*PERSONAL ADSCRITO AL SERVICIO DE FORMACIÓN NÁUTICO-PESQUERA DEL CENTRO DE FORMACIÓN NÁUTICO-PESQUERA DE BERMEO AFECTADO POR ESTE DECRETO*

*I.– PERSONAL FUNCIONARIO*

| Apellidos y nombre | DNI | Puesto | Cargo | Clase de nombramiento |
|---|---|---|---|---|
| Agudo Urresti, M. del Carmen | 72252753 | P.T. Nivel 14 | | Func. de carrera |
| Duque Castillo, Emilio | 72241607 | Prof. BUP/FP | Tutor | Func. de carrera |
| Ensunza Lamiquiz, José Ignacio | 72239862 | Prof. BUP/FP | Jefe Departamento | Func. de carrera |
| Goyenechea Garay, Juan Carlos | 14910968 | Maestro Taller For. | | Func. de carrera |
| Zabaleta Astoreca, M.ª Begoña | 78868489 | Pto. TR. N.14. C2 | | Func. de carrera |

*II.– PERSONAL LABORAL*

| Apellidos y nombre | DNI | Puesto | Cargo | Clase de nombramiento |
|---|---|---|---|---|
| Echevarria Betanzos, Arantza | 72252834 | Ayt. Ges.<br>Serv. Com | | Interino |
| Fernández González, José Luis | 78868595 | Tit. Sup.<br>Act. Espec | Secretario | Laboral fijo |
| Goitia Renteria, Juan Francisco | 24402179 | Tit. Sup.<br>Act. Espec | Jefe Estudios Bup | Laboral fijo |
| Gutiérrez Bustamante, Miren | 14592569 | Tit. Sup.<br>Act. Espec | Jefe Departamento | Interino |
| Jaureguizar Emerit, Ernesto | 72248242 | Ayt. Ges.<br>Serv. Com | | Laboral fijo |
| San Miguel Rodriguez, Karmele | 16070803 | Tit. Sup.<br>Act. Espec | Tutor | Laboral fijo |
| Urruchua Madariaga, Fco | 72236628 | T. Sup.<br>Act. Tec. Prf | | Laboral fijo |
| Zabalbeascoa Garro, José | 14874396 | Tit. Sup.<br>Act. Espec | Tutor | Interino |
| Zabaleta Gaubeca, Juan A | 72244122 | Tit. Sup.<br>Act. Espec | Director | Laboral fijo |